

Benidormeko *La Llosa*.

Alacant-ego kostaldean, Benidormeko uhartetik ehunka metrotara, *La Llosa* izeneko urperatutako mendia altxatzen da zazpi metroko sakoneraraino.

Sierra Helada Parke Naturalean kokaturik dago; berta hiru buia aurkitzen dira, batetik, ontziak lotu ahal izateko, eta bestetik, baliabide naturalen errespetuzko erabilpena eskatzeko.

La Llosa, bere izaera, bere uretan aurkitzen den bioaniztasuna eta ur azpiko paisaiak direla medio, ur azpiko kirola egiteko toki ezin hobea da.

Ur azaletik gertuen dauden parteetan, murgilariak bere burua *Thalassoma pavo* edo *arrain berde* sarda handiez edo neurri handiko durdoren batez inguratua ikustea ohikoa da.

Horretaz gain, muxar arrunta eta handia eta barbarina aurki ditzake etengabe janari bila alga artean, karekizko hondarrezko hondo detitrikoan.

Bentosaren gainean, itsas-lasterrak mehatxaturik, arrain esparidoak dira nagusi.

Zerumugan, marra horidun salpa sarden distira ikusten da, alga eta fanerogama belardi artean bazkatzen duten bitartean.

Esparidoak, gure kostaldean ugariak diren esparidoek ale askoko sardak osatzen dituzte, eta batzuetan espezie desberdineko aleek ere bat egiten dute.

Badira ezaugarri nahastezinak erakusten dituzten arrainak: buztanbeltzak, zuriz inguraturiko orban beltza isats hegalean; muxar arruntak, bi marra zabal beltz garondoan eta buztanean; eta muxar ezpainlodiak, marra ilun bertikalak gorputz osoan zehar.

La Llosa-ko ur gardenetan, beti ikus daitezke esparido sardak. Batzuetan, berrugeta taldeak ere agertzen dira.

La Llosa-ko ekialdeko isurialdean, 20 metroko sakoneratik behera, hondo gaineko harkaitz handiak substratu eta babestoki dira organismo ugariarentzat.

Horma harkaiztsuetan, organismo esziafiloek, esaterako *Parazoanto* anemona txertatzaile horiek, iragazle handia berau, iluntasuna maitatzen duten beste hainbatekin batera, kolore pintzelkada batzuk gehitzen dizkiote mediterranean paisaia urdinari.

Itsas hondoaren gainean, zerianteo bakartiek garroak luzatu eta laburtzen dituzte, plankton zatikiez jabetu eta elikatzeko.

Harkaitz eta harri talde honen egitura konplexuan, komunitate, populazio eta espezie ezberdinak bizi dira batera, itsas ekosistema berean.

Paisaiaren zoko bakoitzean, espezie interesgarriak aurkitzen dira, bizargin dotorea, esaterako, edo nudibrankio hauskor eta koloretsuak.

Arrakaletan, olagarro handia eta mimetikoa den krabarroka txikia. Eta lotxa iheskorrek, erregetxo txiki eta aingirekin elkarbanatzen dute babeslekua. Itsas suge ikusgarri eta lotsatia ere ugaria da.

La Llosa-ko harkaitz, arku eta horma izugarriek, ezin konta ahala itsas organismori ematen diote ostatu.

Argi eta kontra-argiz josia, paisaia paregabe honek itsaspeko mundu bat erakusten digu bere osotasunean, mediterranean kostalde harkaiztsuko ugartasun ikaragarriaren isla.